

EBAZPENA, 2023ko azaroaren 24koa, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako Zuzendariarena; Ebaluazio Batzordeen kide batzuk kentzea eta beste batzuk izendatzea xedatzen duena. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileei banakako ordainsari-osagarriak ebaluatu eta ondoren esleitzeko Ebaluazio Batzordeetako kideak kendu eta izendatzeko dena, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legean xedatutakoa betez.

Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legearen 8.3.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Agentziako Zuzendariari dagokio ebaluazio-batzordeetako kideak izendatzea eta kargutik kentzea, Aholku Batzordeak proposatuta.

Horregatik, eman zaizkidan eskumenak erabiliz eta aurreko aurreikuspenak betez, honako hau,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Ondoren zehazten diren Ebaluazio Batzordeetako kide hauek kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea:

1.- Giza Zientzietako Batzordea

Batzordeburua: Pedro Serna Bermúdez

Batzordekideak: Ramón Sobrino Sánchez y Patxi Salaberri Zaratiegi

Bigarrena.- Aholku Batzordeak proposatuta, hurrengo Ebaluazio Batzordeetako kideak izendatzea:

1.- Giza Zientzietako Batzordea

Batzordeburua: Ramón Sobrino Sánchez

Batzordekide: Iraide Ibarretxe Antuñano

Hirugarrena.- Ebazpen honek egun honetatik bertatik aurrera izango ditu ondorioak. Hala badagokio, ebazpena ezagutzera emate aldera Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren web orrian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 24a.

IÑAKI HERAS SAIZARBITORIA

Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako zuzendaria

